

# Héctor Llaitul, preso maputxea

## «Lurrik ezean, maputxeen nortasuna berreraikitzerik ez dago»



Ezkerreko irudian, Héctor Llaitulen argazkia (kartzelara egindako bisitan ez ziguten utzi argazki makinarik sartzen); eta goitik behera, elkarretaraztea preso maputxeen askatasuna aldarrikatuz eta maputxeen banderak.

Txile eta Argentina artean banatzen den Maputxe Herriak bere lurren gaineko kontrola berreskuratzeko eskubidea aldarrikatu du aspalditik. Maputxeen agintarietako batek, Héctor Llaitul presoak, gose greba hasi zuen joan den apirilean, Angoleko kartzelara eskatutako lekualdaketa ez ziotelako onartu. Llaitulekin izan gara kartzelan, maputxeek Txileko Estatuaren aurka duten gurutzadari buruz hitz egiteko.

ALVARO HILARIO  
PÉREZ DE SAN ROMÁN

**TEMUCOKO JENDARMERIAREN** zuzendaritzara Héctor Llaitul bisitatzeko baimena eskatzera joan ginenean, hartu gintuen jendarmek “preso berezia” zela ohartarazi zigun. Preso politikoa ote zen galdetu genionean, ezetz esan zuen, eurek atxiloturiko maputxeari *comunero* esaten dietela. Maputxeen lurra berreskuratzeko borrokan dauden komunitateak batzen dituen Arauko-Malleko Koordinakundeko agintaria da Héctor Llaitul. Ez da, gainera, irakurleontzako ezezagun bat: duela urte bi, klandestinitatean zegoela, Maputxe Herriak Txileko Gobernuaren aldetik jazarpena jasaten duela salatzeke izan genuen orrialde hauean Fernando izenpean. Pasa den otsailaren 21ean, polizia atxilotu egin zuen Concepción hirian. Epaileak “sute terrorista sortzea” leporatu zion eta “gizartearentzako arriskutsua” zelako espetxeratu zuten. Apirilaren 13an gose greba hasi zuen, Angoleko espetxera eraman zezatela eskatzeko, eta maiatzaren hasieran,

gure bisitaldiaren ostean, bertan behera utzi zuen greba, kartzelaz aldatzea lortu baitzuen.

“Dakizunez, mendietan ezkatututa ibili naiz, hiriak guretzako ez baitira batere seguruak: polizia eta salatariz beteta daude. Hala ere, hirira joan nintzen eta hori izan zen nire akatsa”, kontatu zigun Llaitulek. “Acevedo plazatik pasatu nintzenean, horrelakoetan ohikoak diren zereginetan ikusi nuen jendea: andre bi gimnasia egiten, eta abar”. Konturatu zenerako, emakumeak eta beste asko gainean zeuzkan. Hasiera batean Concepción hiriko presondegian espetxeratua izan zen arren, Temucokora eraman zuten gero; bere esanetan “famiarentzako zigor ekonomikoa izan zen”.

### “Deabruzat naukate”

Ezkonduta dago eta bost seme-alaba ditu Héctor Llaitulek. Guk Temucon zegoenean ikusi genuen eta bera bisitatzeko sei orduko bidaia egin behar izaten zuen Pamela emazteak. Erite-

## ● Héctor Llaitul, preso maputxea

giko argirik gabeko ziegan zegoen isolatuta. Ohea eta mahai txiki bat baino ez zeuzkan, aulkirik ere ez baitzioten eman. “Espetxe barruko beste espetxe batean naukatela esan daiteke. Ez dut patiora joaterik, ezta kirola egiteko edota ikasteko eskubiderik ere. Deabruzat naukate beste askotan auziperatuta egon naizelako”, azaldu zigun. Txileko hedabideek koordinakundeko *toki* (buruzagi militar) moduan aurkezten dute eta Héctor Komandantea ezizena ipini diote. “Txileko hedabideek gobernuaren mesederako egiten dute lan interes ekonomiko berak dituztelako. Hedabideak eskumaren eta lurrak lapurtzen dizkigutenean (hidroelektrikoak, latifundistak, basoak ustiatzen dituzten enpresak, paper-fabrikak...) esku daude; hau da, egungo gobernu sozialistarentzat estrategikoki funtsezkoak diren arlo ekonomikoen esku. Hedabideek gaizto bihurtzen gaituzte; kriminalak bagina bezala aurkezten gaituzte iritzi publikoa gure kontra jar dadin, sostengua gal dezagun”. Horiek ez dira azpijoko bakarrak. Kazetariren batek ere parte hartu izan du akusazioak egiteko orduan. Aski ezaguna da, adibidez, Arauko-Malleko Koordinakundeko *werken* (bozemaile) den José Llanquileo atxilotzeko balio izan zuten disketeak *El Mercurio* egunkariko Francisco Palma kazetariak eman zizkiola Llanquileori berari.

2006ko abenduaren 26an, Forestal Minincoren fabrikak Txoltxol zonaldean duen Las Praderas lur soroan zortzi txanodun sartu eta han zegoen tresneriari su eman izana: hori da Llaituli leporatzen dioten delitua; Txileko justiziaren arabera “sute terrorista”. Bost eta hamaika urte bitarteko zigorra eskatzen dute maputxearentzat, Llaitulen hitzetan bere kontra duten frogak bakarrik tortura eta mehatxuei esker lortutako lekukotasuna den arren. “Egun batzuk beranduago, zibil talde batek Roberto Painemil Forestaleko kamioi gidaria atzeman zuen. Gogor kolpatu eta elektrodoak ipini zizkioten. Torturak salatuz gero, familiarekin hartuko zutela mendekua esan zioten. Beste auzi guztiak bezala, muntai hutsa da hau ere”. Painemilek fiskalaren aurrean egin zuen aitortpena, ez epailearen aurrean, zegokion moduan. Lautaroko presondegian dago bera. “Gobernu sozialistak dio tortura diktadura garaietako kontua dela eta saiatzen da praktika hauek, maputxeon kontra ohikoak direnak, isilarazten –jarraitu zuen Llaitulek–. Ezinbestekoa dugu hau guztia ezaguta-



Goiko irudietan, Forestal Minincoren iragarkia egunkari batean eta Temucoko espetxea.

“Hedabideek kriminalak bagina bezala aurkezten gaituzte iritzi publikoa gure kontra jar dadin, sostengua gal dezagun”

raztea. Horretarako, zuek bezalako pertsonengan eta hedabide alternati- boetan dugu konfiantza oro, Txileko hedabideak Estatuarentzat funtzio- nalak baitira eta asko dira aditzera ematen ez dituzten kontuak: para- militarren ekintzak –pasa den men- deko Hernán Triziano genozidaren izena daraman komandoa, esatera- ko–, torturak, aurpegirik gabeko lekukoaren erabilpena eta abar”. Espe- txean dauden hogeita zortzi mapu- txeen aurkako ia epaiketa guztietan lekuko babestu horien esanak nahi- koa izan dira akusatuei erruduntasu- na leporatzeko. “Haietako askok komunitateetan arazoak eduki dituz- te eta diruaren truke errepikatzen dute karabineroek irakasten diete- na”. Ur botilari zurrupada eman eta segitu zuen: “Garrantzitsua da baita ere abokatuen kontua. Diktaduraren garaietan zeuden abokatuek gaur egun ez dute ezer jakin nahi, eta nahi izatekotan mota guztietako erasoak eta mehatxuak pairatzen dituzte.

Alberto Espinosak [Santiagoko abokatu ospe- tsuak] gu laguntzeko bere burua eskaini du, baina hegazkin txartelak ordaindu beharko genizkioke. Bakarra izan da. Neuk Estatuak berak ipinitako abokatua daukat, ezer egiten ez duena, ezta torturak salatu ere. Legearen izapide hutsak betetzeko baino ez du balio”.

### Nortasuna eta kultura berreraikitzen

Gure bisitaldia bukatzeaz zegoela, egungo egoe- rari errepasso txikia eman zion presoak: “Ende- sarekin batera gure etsai nagusienetakoa den Forestal Minincoren bere lur soroak defendatze- ko modua aldatu du: ohiko indarkeriaz eta para- militarrez baliatzeaz gain, baliabide sotilagoak ere erabiltzen ditu orain: inguru horretan dau- den gabeziak ikertu eta garapenerako zuden- duak bailiran egitasmo errepresibo berriak bul- tzatzen ditu; hala nola, propaganda, umeentzako ikastaroak, auzokide ‘gaiztoak’ eta ‘terroristak’ baztertzeko armak ehiza eta arrantza klubei nahiz nekazariei, behatze komi- teak... Borrokalariok isolatzeko itze- lezko perimetro defentsiboa egiten ari da eta basozainek gizartearen arlorik txikienetan ere eragiten dute”. Baina esperantza galdu barik,

honakoa bota zidan kartzelatik ateratzera gin- doazenean: “Hala ere, lortu dugu komunitateek borrokan jarritzea eta koordinakundeak haie- kin duen loturari eustea. Garrantzitsua da gure- tzat lurrak berreskuratzea; lur ezean, Maputxe Herriaren nortasuna eta kultura berreraikitzerik ez dago”. ■